

# DEBAKO ZEZEN PLAZA

## FESTEJOS TAURINOS DE 2009



Azken urteetan bezala Debako zezen-feriak pikatzailerik gabeko 3 zezenketa eskaini zizkigun, eta ergiak Puerto de San Lorenzo eta Venta del Puertoko Lorenzo Fraile Martín ganaduzalearenak izan ziren.

Lehenengo entzierroa oso azkarra izan zen eta bitxikeria bezala aipatu daiteke zekor-taldea gidatzen zuen joaldunetako bat oso atzean gelditu zela. Horren ondorioz, sarrerako atea itxi egin behar izan zen zekorrek itzul ez zitezten eta azkenean joalduna bakar-bakarrik ukiuluetara bueltatu zen. Hilaren 18 eta 20ko entzierroak 3 joaldunek gidatu zituzten, 16koak baino motelagoak izan ziren eta horregatik lasterraldi paregabeak ikusi ahal izan ziren, izan ere, Deban korrikalari apartak daude!

Halaber, Nafarroako Cabanillas herria ia hamar bat korrikalari harrapatu eta hil izanak (horietako bat 16 urteko adingabea) entzierroen inguruko polemika piztu zuen. Hala ere, esan behar da, Deban orain dela ia 100 urte baino gehiagotik antolatzen direla entzierroak gero arratsaldean toreatuko diren zekorrek, eta Gipuzkoan ez dago horrelako besterik. Beraz, oso ohitura herrikoa da Deban eta gainera, Debako Udalarentzat (antolatzailea izanik) segurtasuna izaten da kezka eta lehentasun nagusia. Egia esan, inoiz ez da gertakari larririk izan eta Euskadiko Zezenketa-araudiak balizko zaurituak artatzeko ezarritako osasun-aurreikuspenak goitik betetzen dira.

Hariari jarraituz, lehen aipatutako araudiak zezenketetan 16 urtetik beharokoen parte hartzea debekatzen du eta hori kontuan hartuz, zezenketen ondoren Debako plazan izaten diren enbolatuei buruzko hausnarketa egin beharko litzateke, azken urteetan parte hartzea oso txikia izan da-eta.

Debako zezen-tradizio handia du. Zezen plaza ere oso berezia da eta gainera ikusleek zein parte hartzaileek gustuko dute. Bilbon eta Azpeitian bezala, Deban ere gaiten doinuak entzuten ditugu banderillen ekitaldian eta Azpeitian bezala hirugarren zezena hil eta gero Jose Ventura Laca toreatzaile debarraren omenez jotzen den hileta-zortzikoa entzuten dugu. Dakizuen bezala, toreatzaile hori Azpeitian harrapatu zuen zezenak bikain banderillatzen ari zenean eta hurrengo egunean hil zen zauri larri haien ondorioz.

Eta gainera, publiko leiala dugu, plaza arratsaldero betetzen duena eta jarrera eredugarria eta ezin hobea duena, nahiz eta kasu guztietan bezala, salbuespenak ere badauden. Antolaketa ere serioa da, araudiak ezarritakoari jarraituz, ateak arratsaldeko bostetan puntuan irekitzen ditu jendea plazan eser dadin. Horrez gain, zezenketa betan puntualtasun handiz hasten da. Gero, dena delakoagatik zekorrek oldartuko dira edo ez, toreatzailegaiak ondo arituko dira edo ez, baina jaialdi serio eta era berean alai egiteko oinarriak jarrita daude, Debako plazan, harmonia, jolasa eta zeremonia ondo uztartzen direlako.

Deban oso barneratuta dugu zezenak gure muinean daudela, gure kulturaren eta San Roke jaietan eta horregatik da posible lehen esandako guztia. Orain, xehetasunak zaindu behar ditugu, askotan oso garrantzitsuak baitira. Adibidez, antolaketako norbaitek edo zezendegikoren batek edo aguziltxoak edo zaldi-laguntzaileetako batek esan beharko die toreatzaile eta aginduekoei kapela adeitasunez erantzi behar dutela bandak hileta-zortzikoa jotzen duen bitartean. Badakigu eguerdiko 12etako zozketan aholkulari teknikoak beti esaten diela baina hala ere batzuetan ez dute gogoratzen.

2009ko ferian esperientzia egin zen hondarrarekin, lehen ekartzen zena baino buztintsuagoa ekarri zen plazaren segurtasunerako eta zekorrek gutxiago eror zitezten. Orain, izan dituen emaitzak eta alde txarrak baloratu beharko dira. Halere, arazoak plazaren zoruak berak sortzen ditu eta ez hainbeste zabaltzen den hondar motak.

Aholkulari teknikoa Paco Salegui izan zen eta albaitari aholkularia Isidro Aristi. Aguziltxo Mendaroko Illart Urain izan zen eta ez zuen aurreko saioetako aurrerapen eta erraztasunik erakutsi. Musika banda, beti bezala, ezin hobeto aritu zen eta horrek giro berezia sortzen du beti plazako jai giroari beste ukitu bat emanez.

Como viene siendo habitual en los últimos años, la feria taurina de Deba nos ofreció tres novilladas sin picadores, con erales del Puerto de San Lorenzo y de la Ventana del Puerto del acreditado ganadero D. Lorenzo Fraile Martín. Se celebraron también los tradicionales encierros con los novillos que fueron lidiados en cada uno de los festejos organizados para los días 16, 18 y 20 de agosto.

El primer encierro, muy rápido, tuvo la anécdota de que uno de los cabestros encargado de conducir la manada quedó muy rezagado, por lo que al tener que cerrarse la puerta de entrada para evitar que los novillos volvieran sobre sus pasos, no pudo entrar en la plaza volviendo a los corrales en solitario. Los encierros de los días 18 y 20 de agosto fueron conducidos por tres cabestros, fueron más lentos que el del día 16 y permitió que se vieran excelentes carreras de los corredores, buenos corredores, que hay en Deba.

Por cierto, tras el fallecimiento de casi una decena de corredores, entre ellos un menor de 16 años en la localidad navarra de Cabanillas, los encierros de toros y novillos no han estado exentos de polémica. Sin embargo, es necesario dejar constancia de que en Deba se celebran encierros desde hace más de 100 años con los novillos que serán de lidia ordinaria en la plaza de toros por la tarde, lo que es un caso único en Gipuzkoa. Es por tanto, una tradición muy popular entre los debarras. Pero es también un encierro en el que la seguridad es una de las grandes preocupaciones y prioridad principal del organizador, que no es otro que el Ayuntamiento de Deba. De hecho, nunca han ocurrido incidentes destacables y las previsiones sanitarias de atención a los posibles heridos superan holgadamente las mínimas exigidas por el Reglamento Taurino de Euskadi.

A modo de paréntesis, teniendo en cuenta que el citado reglamento prohíbe la participación de menores de 16 años en festejos taurinos, sería conveniente una reflexión sobre las vaquillas y embolados que se corren en la plaza de Deba tras las novilladas, teniendo en cuenta la escasez de participantes en los últimos años.

Deba tiene una gran tradición taurina. Un coso singular y genuino que gusta mucho a todos los que acuden a los festejos taurinos, ya sea como espectadores o como participantes. Una singularidad que nos permite, como en Bilbao o Azpeitia, escuchar los sonos de la gaita en el tercio de banderillas o, como en Azpeitia, y tras la muerte del tercer toro, es posible disfrutar del zortziko fúnebre que en recuerdo al torero de Deba, José Ventura Laca, cogido en Azpeitia cuando banderilleaba soberbiamente a un toro y que falleció al día siguiente de la mortal cogida en la localidad del Urola.

Y tenemos además un público fiel que llena cada tarde los tendidos y que tiene un comportamiento ejemplar y envidiable. Como en todos los casos, con alguna insignificante excepción. Y, por qué no decirlo, contamos con una organización seria que, como obliga el reglamento, abre las puertas a las cinco de la tarde, facilitando la entrada del público a las gradas. Además, el festejo da comienzo con gran puntualidad a las 6 de la tarde. Luego los novillos embestirán o no, los candidatos a toreros tendrán mejor o peor actuación, pero las bases para hacer un espectáculo serio y festivo a la vez y donde conviven en armonía lo lúdico y lo ceremonial, están muy consolidados.

Seguro que esto es posible porque en Deba tenemos muy interiorizado que los toros son parte de nuestra esencia, de nuestra cultura y que es algo consustancial a las fiestas de San Roke. Ahora hay que seguir cuidando los pequeños detalles que, muchas veces, terminan siendo los más importantes. Por ejemplo, algún miembro de la organización, torileros, alguacillillo o mulilleros, tendrá que recordar a novilleros y subalternos que cuando la banda de música interpreta el Zortziko fúnebre, tienen que desmontarse respetuosamente, algo que ya advierte el asesor taurino en el sorteo de las 12 del mediodía, pero que no siempre recuerdan.

En esta feria de 2009 se ha hecho un experimento en la plaza cambiando la arena tradicional por otra más arcillosa, para más seguridad en el coso y para evitar la caída de los novillos. Ahora hay que hacer una valoración de los resultados y de los problemas, aunque los problemas reales están más en el tipo de suelo de la plaza que en el tipo de arena que se extiende.

La asesoría técnica corrió a cargo de Paco Salegui, y la asesoría Veterinaria de Isidro Aristi. Las labores de alguacillillo corrieron a cargo del mendarés Illart Urain, que dio la sensación de haber frenado un poco la progresión y el desparpajo mostrados en anteriores actuaciones. La banda de música, excelente como siempre, hace que el ambiente sea algo especial y que llene de fiesta unos tendidos ya de por sí muy predisuestos a ello.



DIEGO FERNÁNDEZ



### SAN ROKE EGUNEKO ZEZENKETA. ABUZTUAK 16 SARRERAK BUKATUTA

**Puerto de San Lorenzoko** zekorrek izan ziren lehena, hirugarrena eta laugarrena eta **Ventana del Puertoko** bigarrena. Oso ondo aurkeztutakoak denak, hirugarrena izan ezik, kapazu formadun adarrak baitzuten. Jokaera ezberdinekoa. Lehena (54 zenbakia) oso mantsoa izan zen, zezentegirantz joateko joera izan zuen eta oso indar gutxikoa. Bigarrena berriz (21 zenbakia) noblea eta gutziatsua. Oso ona izan zen hirugarrena (74 zenbakia) eta laugarrena (50 zenbakia) eskuineko adarrarekin motz gelditu zen baina ezkerrekin ondo ibili zen. Bigarrena eta hirugarrenak ikusleen txaloak jaso zituzten arrastean.

Kartelean aurreikusitako zezenketa-ordena aldatu zen.

**Diego Fernandezek** traje gorri bizia eta urre kolorekoa jantzi zuen, ezpata-kolpe baxua (txaloak) eta ezpata-kolpe eroria (belarri bat). **Victor Barriok** traje urdina eta urre kolorekoa jantzi zuen: hiru ziztada eta ezpata-kolpe baxua (plazatik agurtu zuen) eta 4 ziztada eta ezpata-kolpe erdi eroria (isilunea).

Madrilgo zezen-eskolako **Diego Fernandezek** kapotearekin ondo toreatu zuen bere lehen zekorra baina hain mantsoa eta ahula izan zenez ez zion nabarmentzeko aukerarik eman. Bigarrenean berriz, zekorra ibilbide onekoa izan arren eta bi adarretatik ondo ibili zen arren ez zuen toreatzaileak maila onik erakutsi. Hala ere ezker adarrarekin bi serie on eman zituen eta ezkerrekoarekin bat. Toretzaile papera barneratu eta azkar hil zituen zekorrak. Baina, oraindik asko du ikasteko.

**Victor Barrio** ere Madrilgo zezen-eskolakoa da. Ikusleen gehiengoak gustuko izan zuen areto-zezenketa ondo ikasia duela demostratu baitzuen eta figura ere ondo osatzen jakin zuelako. Oso pintoreskoa izan zen. Baina lehenengo zekorri egindako estatuarioak salbu, besteetan oso atzeturik toreatu zuen eta gehiegi erabili zuen muletaren muturra. Ez zuen ulertu zekorrek distantzia emanez toreatu behar direla eta gaineratzearen aldeko aukera egin zuen (modan dagoena) toreatze sakona eta barrenekoa alde batera utzita. Ezkutalekuetatik ere ez zuen aholku onik jaso.

Plaza erabat bete zen eta sarrerak bukatuta zeudela adierazten zuen kartela jarri zen. Horrek erakusten du San Roke eguna, abuztaren 16a, egun berezia dela eta debar zezenzaleek ez dutela hutsik egin nahi zezen plazan egun handi horretako zezenketa ikusteko.

**Diego Hermosilla** izan zen ordezkoa.

Realeko lehendakaria den Jokin Aperribai izan zen zezenketako lehendakaria, eta haren omenez eta talde txuri-urdinaren mendeurrena ospatzeko Debako bandak Realaren ereserkia jo zuen.

### NOVILLADA DEL DÍA DE SAN ROKE. 16 DE AGOSTO CARTEL DE NO HAY BILLETES

Tres novillos de la ganadería de **Puerto de San Lorenzo** que se lidiaron en 1º, 3º y cuarto lugar, y otro de la ganadería de la **Ventana del Puerto** lidiado en segundo lugar. Muy bien presentados, excepto el 3º de cornamenta muy acapachada. De distinto comportamiento. El primero nº 54 fue un novillo muy manso con querencia a los toriles y con muy poca fuerza. Noble y codicioso el segundo nº 21. Muy buen novillo el tercero nº 74, y el cuarto nº 50 se quedó muy corto por el pitón derecho y tuvo un buen pitón izquierdo. Aplaudidos en el arrastre 2º y 3º.

Se cambió el orden de lidia previsto en el cartel.

**Diego Fernández** de carmín y oro, estocada baja (ovación) y estocada caída (1 oreja). **Victor Barrio** de azul y oro: 3 pinchazos y estocada baja (saludos desde el tercio) y 4 pinchazos y media caída (silencio).


**Diego Fernández** de la escuela taurina de Madrid toreó bien con el capote a su primer novillo, que fue manso y flojo y no le dio muchas oportunidades de lucimiento. En el segundo, un novillo con recorrido y que iba bien por los dos pitones, el novillero estuvo por debajo de su oponente, aunque dio dos series muy buenas por el pitón izquierdo y otra aseada por el derecho. Estuvo en novillero y acabó pronto con sus novillos, aunque le queda mucho camino por recorrer.

**Victor Barrio** también de la escuela taurina de Madrid. Fue del agrado del gran público porque mostró que tiene bien aprendido el toreo de salón y de componer la figura. Estuvo muy pintoresco, pero excepto unos estatuarios al 1º, toreó muy despegado y utilizó en exceso el pico de la muleta. No entendió que había que torear a los novillos dándoles distancia y se obsesionó con un toreo muy encimista y tan de moda en la tauromaquia moderna, en lugar de por el toreo profundo y hondo. Tampoco le aconsejaron bien desde los burladeros.

Hubo un lleno absoluto y se puso el cartel de no hay billetes, con la constatación de que el día de San Roke, 16 de Agosto, es un día especial en el que ningún taurino debarra quiere faltar a la plaza para disfrutar de la novillada del día grande de las fiestas.

Actuó como sobresaliente **Diego Hermosilla**.

Presidió la novillada el presidente de la Real Sociedad, Jokin Aperribai, en cuyo honor y como conmemoración del centenario del club txurirdin, la banda de música interpretó el himno de la Real.



VICTOR BARRIO







## HILAREN 18KO ZEZENKETA IA BETETA

**Puerto de San Lorenzo**ko lau zekor toreatu ziren. Aurkezpen onekoak, gorpuzkera eta jokabide ezberdinetakoak. Lehenak, 33 zenbakidunak, ezkerreko adarra ona zuen, eskuinekoarekin defendatu zen eta noblea eta ibilbide onekoa izan zen. Bigarrena, 123 zenbakiduna, zaila izan zen, pisu eta jenio handikoa. Hirugarrena, 99 zenbakiduna, bikaina izan zen, oso noblea eta ibilbidekoa bi adarretatik. Plazan bira eman zitzaion. Laugarrena, 96 zenbakiduna, mantsoa, kikila eta kastarik gabekoa. Lehena eta bigarrenak ikusleen txaloak jaso zituzten arrastean.

Jesus Chover ez zen etorri hilaren 16an izandako zezenketa batean zauritu egin zelako. Haren ordeztu Jesus Chover valentziarrak toreatu zuen eta bigarrena izan zen.

**Jose Emilio Huertasek**, nazaretar eta urre koloreko trajea jantzi zuen, ziztada sakon bat, zekorrek kanpora jaurti zuen ezpata kolpe motz eta baxua, eta bolarainoko ezpata kolpea (txalo zaparrada), 2 ziztada, ezpata kolpe harilkatua eta aurkako erdia (itzulia); **Juan Cerverak** gorri ilun eta urre koloreko trajea jantzi zuen, ziztada bat eta ezpata kolpe ia osoa (isilunea) eta ziztada eta ezpata kolpe eroria (agurrak). Agindupekoek lan handia egin zuten banderillekin eta laugarren zekorrean publikoak agurtu zuten.

Elvira Echeverria izan zen zezenketako lehendakaria eta bere lana oso ondo bete zuen.

Plaza ia beteta. Lorenzo Fraile ganaduzalea eta bere seme Jose Juan (ganaduzalea hori ere) agintarien balkoian egon ziren eta baita Camboko ordezkariak eta alkatea ere.

Ciudad Realeko **Jose Emilio Huertasek** publikoari eskaini zion bere lehen zekorra. Zozketan sorta ona suertatu zitzaion, ez zuen bere lehen zekorraren ezker adar ona aprobetxatu eta ergiaren azpitik egon zen. Bigarrenean zekorra ulertu zuen eta urrutitik toreatzen saiatu zen nahiz eta lehen erasoaldian zekorrek aurrean hartu. Pase egokiren bat eman zuen bi adarretatik baina ez zen zekor paregabearen mailan egon. Ezpatarekin asko hobetu behar du. Kapotearekin ondo aritu zen.

Valentziako **Juan Cervera**, Arlesen (Frantzia) eta Valentzian arrakasta izanda zetorren, azken hiri horretan ate handitik atera baitzen. Hala ere, ez zen gustura aritu. Bere lehen zekorra ez zuen ulertu eta toreroa gainditu zuen. Lasai eta gozatzuz toreatzen saiatu zen baina zekorrek distantziatik toreatzea eskatzen zuen. Ergiaren pausoak askotan galdu zituen eta pare bat aldiz desarmatu zen. Laugarrenean askoz hobeto aritu zen eta estiloa eta etorkizuna duela erakutsi zuen. Zekorra mantsoa eta kikila zen eta hala ere gozatzuz toreatu zuen, talentuz. Zekorraren ginetik egon zen.

**Francisco Javier Ramírez** izan zen ordezkoa.

## NOVILLADA DEL DÍA 18 DE AGOSTO CASI LLENO

Cuatro novillos de **Puerto de San Lorenzo** bien presentados con hechuras y comportamientos diferentes. El primero nº 33, un novillo con un buen pitón izquierdo que se defendió por el derecho, noble y con recorrido. El segundo nº 123 fue un novillo difícil de mucho peso y con mucho genio. El tercero nº 99 excelente novillo, muy noble y con largo recorrido por ambos pitones, se le dio la vuelta al ruedo, y un cuarto nº 96 que fue un novillo manso rajado y sin casta. El primero y segundo fueron aplaudidos en el arrastre.

Se cayó del cartel Jesús Chover al ser herido por un novillo en un festejo en el que participó el día 16, siendo sustituido por Juan Cervera, de Valencia, que actuó en segundo lugar.

**José Emilio Huertas**, de nazareno y oro, un pinchazo hondo, corta baja que escupe el novillo y estocada hasta la bola (ovación), 2 pinchazos, estocada que hace hilo y media contraria (vuelta); **Juan Cervera** de grana y oro, un pinchazo y casi entera (silencio) y pinchazo y estocada algo caída (saludos). Destacaron los subalternos en el tercio de banderillas saludando en el cuarto novillo.

Presidió Elvira Echeverría que cumplió con nota su papel.

Casi lleno. El ganadero Lorenzo Fraile y su hijo José Juan también ganadero, estuvieron en el balcón de autoridades, así como representantes de Cambo, encabezados por su alcalde.


**José Emilio Huertas** de Ciudad Real, brindó al público su primer novillo. Le tocó el lote bueno en el sorteo, no aprovechó el buen pitón izquierdo de su primer novillo y estuvo por debajo del eral. En el segundo entendió el novillo e intentó torearle de lejos, aunque fue arrollado en la primera embestida. Dio algún pase de mérito por los dos pitones pero no estuvo a la altura del excelente novillo. Tiene que mejorar mucho con la espada. Estuvo bien con el capote.

**Juan Cervera** de Valencia, venía de triunfar en Arlés (Francia) y en Valencia donde había salido por la puerta grande. Sin embargo, no se le vio a gusto, no entendió a su primer novillo que pudo con el torero. Intentó torear despacio y con temple pero el novillo pedía ser torado dándole distancia. Toreó perdiendo muchos pasos al eral y fue desarmado un par de veces. En el cuarto estuvo mucho mejor, demostrando que es un torero con buenas maneras y con futuro. Lo poco que le dejó el novillo manso y rajado, lo hizo con mucho temple y talento. Estuvo por encima de su oponente.

Actuó de sobresaliente **Francisco Javier Ramírez**.



JUAN CERVERA



JOSE EMILIO HUERTAS



EDUARDO PEREIRA



MIGUEL ANGEL MORENO

## HILAREN 20KO ZEZENKETA IA BETETA

**Ventana del Puertoko** hiru ergi eta **Puerto de San Lorenzoko** bat. Aurkezpen paregabea eta bikaina izan zuten eta gorpuzkera oso desberdinekoak. Lehena (13 zk.) ikusgarria, beltz zipriztindua, iztarrarte kolore desberdinekoa zena eta lepoa iluna baina lepokoa zirudien mantxa argi batekin. Hezigaitza eta noblea, etengabe eskuak galdu zituen; bigarrena (11 zk.) arraza hobetutakoa, aztarrika aritu zen askotan eta bultzadaka erasotuz defenditu zen; hirugarrena (28 zk.) oso noblea zen eta ezker adarrarekin oso ondo aritu zen eta laugarrena (17 zk.) zezenketan zehar hobetuz joan zen. Hirugarrenak eta laugarrenak txaloak jaso zituzten arrasteen.

Malagako David Martin (Victoriano Martinen iloba) ez zen etorri bezperan izan zuen zezenketa batean zauritu zelako. Colmenar Viejoko Eduardo Pereirak ordezkatu zuen.

**Eduardo Pereirak** nazaretar eta urre koloreko trajea jantzi zuen, erdiko eta atzealdeko ezpata kolpea eta deskabelloa (itzulia) eta zitztada bat, zekorrek kanpora jaurti zuen ezpata kolpea eta aurkako ezpata-kolpea (isilunea) eta deskabelloa (isilunea); **Miguel Ángel Morenok** bost zitztada eta ezpata kolpe eroria (isilunea) eta zitztada eta aurrealdeko ezpata kolpea (belarri bat).

Buru-Zuri tabernako Asun Iriondo izan zen zezenketako lehendakaria eta txalo zaparrada jaso zuen balkoian agertu zenean. Bere lana ondo bete zuen laugarren zekorrenagatik toreroari belarria eman zionean (publikoak gehiengoz hala eskatuta). Balkoian Carlos Garaikoetxea eta haren emazte Sagrario Mina eta Begoña del Teso kazetaria izan ziren. Plaza ia beteta.

**Eduardo Pereirak** bere bi zekorrek estiloa zuela erakutsi zuen. Kapotearekin bikain aritu zen, ezker adarretik asko eta ondo toreatu zuen. Bere lehen zekorrek oso indar gutxi zuen baina noblea zenez serie politak egitea lortu zuen. Bigarrenarekin pixkanaka-pixkanaka hazten joan zen eta zekorren gainetik bukatu zuen. Toreatze ikusgarria egin zuen bere aurkariarekin gurutzatuz eta erasoaldia luzatuz. Etorrizuna duen toreatzailea da eta Valladolideko gaueko zezenketetan arrakasta izan du jada.

Lorcako (Murcia) **Miguel Ángel Morenok** lehen zekorra zeruari eskaini zion. Bere bi zekorrek oso eroxka eta presati ibili zen, borondatea erakutsi zuen baina tenple eta zezenketa gutxi. Oso gaizki kokatu zen eta zirku itxurako zezenketa egin zuen. Toreatzean hazten joan zen laugarren zekorren noblezia eta kalitatea ez zituen aprobetxatu. Baina, publikoa limurtzen jakin zuen torero borrokalari gisa egindako lanarekin eta belarri bat moztu zuen publikoak gehiengoz eskatuta. Maestranzatik zetorrelako itxaropenak genituen baina ez zuen mailarik erakutsi.

Haren kuadrillako banderilla-sartzaileak bikain aritu ziren banderilla pareekin eta azkenean agurtzeko kapelak erantzi behar izan zituzten.

**Clemente Gonzalez** izan zen ordezkoa.

Laburbilduz, 2009ko zezenketak artistikoki "lauak" izan ziren. Bi zekor bikain ikusi ahal izan ziren eta ganaduaren aldetik batez bestekoa ona izan zela esango genuke, nahiz eta bi edo hiru oso mantsok eta indargabeak izan.

## NOVILLADA DEL DÍA 20 DE AGOSTO CASI LLENO

Tres erales de la **Ventana del Puerto** y uno de **Puerto de San Lorenzo**. Presentación excelente y exquisita de los novillos, que fueron de muy distinta condición. El primero nº13 un novillo precioso, negro salpicado, bragado corrido y gargantillo. Bravo y noble fue un inválido que perdió constantemente las manos; el segundo nº11 un encastado que escarbó mucho y se defendía embistiendo a arreones; el tercero nº28 muy noble con un buen pitón izquierdo que dio juego, y un cuarto nº17 que fue a más según transcurrió la lidia. Tercero y cuarto aplaudidos en el arrastre.

Se cayó del cartel David Martín de Málaga, sobrino de Victorino Martín, que fue cogido por un novillo en un festejo en el que participó la vispera. Fue sustituido por Eduardo Pereira de Colmenar Viejo.

**Eduardo Pereira** de nazareno y oro, media algo trasera y descabello (vuelta) y un pinchazo, estocada que escupe y estocada contraria y descabello (silencio); **Miguel Ángel Moreno** 5 pinchazos y estocada caída (silencio) y pinchazo y estocada algo delantera (oreja).

Presidió la novillada Asun Iriondo, que regentó durante años el Bar Buru-Zuri, fue muy aplaudida cuando apareció en el balcón y cumplió con su tarea dando la oreja del cuarto novillo por petición mayoritaria. Estuvieron en el balcón de autoridades Carlos Garaikoetxea y su señora Sagrario Mina, y la periodista donostiarra Begoña del Teso. Casi lleno.

**Eduardo Pereira** mostró buenas maneras en los dos novillos que le tocaron en suerte. Dejó constancia de ser un buen capotero, y toreó mucho y bien por el pitón izquierdo. Su primer novillo tenía muy poca fuerza pero aprovechó su nobleza con alguna serie de mérito. Con el segundo fue de menos a más, y terminó estando por encima del novillo, haciendo un toreo vistoso, cruzándose con su oponente y alargando mucho la embestida. Un torero que tiene futuro y que ya había triunfado en las novilladas nocturnas de Valladolid.

**Miguel Ángel Moreno** de Lorca (Murcia), brindó al cielo su primer novillo. Estuvo muy alocado y precipitado con sus dos novillos, mostrando mucha voluntad pero nada de templanza y toreo. Muy mal colocado, hizo una faena muy circense. Desaprovechó la calidad y nobleza del cuarto novillo, venido a más durante su lidia al que, tras petición mayoritaria de un público al que engatusó con su actuación como novillero peleón y luchador, cortó un apéndice. No estuvo a la altura de las expectativas que se habían creado tras su paso por la Maestranza.

Espléndidos pares de banderillas nos ofrecieron los palitroqueros de su cuadrilla que tuvieron que desmontarse para saludar.

Actuó como sobresaliente **Clemente González**.

En resumen, una feria taurina la del 2009 que se puede definir como "plana" en su apartado artístico. Se vieron dos excelentes novillos y una media del ganado más que aceptable exceptuando 2 ó 3 novillos que, o fueron muy mansos o tuvieron muy poca fuerza.